

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak jarduketan hasiera onartu du Ubidearen lehen fasea zabaltzeko zonalde ureztagarrian

Finantzaketa-formula 2013ko uztailean lizitatuko dira eta lehen lursailen ureztatzea 2015eko erdialdera hasiko dela kalkulatzen da

Miércoles, 16 de enero de 2013

Nafarroako Gobernuak asteazken honetako bilkuran onartu du jarduketei hasiera ematea [Nafarroako Ubidearen lehen fasea zabaltzeko zonalde ureztagarria](#) garatzeko. [INTIA](#) sozietate publikoaren bidez egingo diren jarduketei esker, interes orokorreko eraikuntza esleitu eta azpiegiturak ustiatuko dira Arga eta Egaren ibaiertzetan dauden 15.275 hektarea berriak ureztatzeko.



Nafarroako Ubidea.

Aurreikuspenen arabera, lanak finantzatzeko formula 2013ko uztailean lizitatuko dira –aukeraketarako, INTIAk bideragarritasuneko azterketa egingo du–, eta kontratua abenduan sinatuko da. Lehen lursailak 2015ko erdialdera ureztatuko direla kalkulatzen da.

Proiektu honekin 15 udalerrri baliatuko dira: Andosilla (1.422 hektarea), Azagra (1.245), Berbintzana (338), Carcar (1.404), Faltzes (872), Funes (1.602), Larraga (2.300), Lerin (1.085), Lodosa (254), Mendigorria (302), Miranda-Arga (1.056), Oteitza (298), Azkoien (1.441), San Adrian (767) eta Sesma (889).

Finantzaketa publiko-pribatua

Gogoratuko denez, Nafarroako Ubidearen zonalde ureztagarria Arga eta Egaren ibaiertzetara zabaltzea Nafarroa-Estatua jarraipen-batzordeak erabaki zuen 2012ko uztailean. Zabaltze hori, bigarren faseko diseinuan sartutako aldatetekin batera, % 11,4an handitzen dute guztira, 59.160 hektarea arte, [zonalde ureztagarria](#) (jatorrizko proiektuaren 53.125 hektarea), emakida-emaria handitzeko beharrik gabe, 340 hektometro kubikotan ezarritakoa, ureztatzeko teknika modernoek dakartzaten ur-kontsumoaren aurrezteagatik.

Lehen faseko zabaltze hori bi proiektu osagarriekin zehazten da. Alde batetik, [Canasa](#) Estatuko sozietate publikoak 21,4 kilometrotako Arga-Ega adarra eraikiko du; zonalde ureztagarria hornituko du, eta kalkulatzen da 42,5 inbertsioa egingo dela 2013 eta 2015 artean. Hodiak Artaxonako

udalerrian hasi, Larraga zeharkatu eta Lerinen amaitzen dira.

Bestalde, gaurko erabakiak aipatzen duen zonalde ureztagarria garatu behar da. Haren barnean, lehen faseko zabaltzearen interes orokorreko obrei dagokien inbertsio-kostua –% 90ean Foru Administrazioak finantzatutakoak eta gainerako % 10a ureztatzaileek– 128 milioi eurokoa da. Gainera, Nafarroako Gobernuak 47 milioi jarriko du ureztatzaileek lursailean jarritako instalaziorako.

Gobernuak onartutako jarduketan arabera, INTIAk zonalde ureztagarri horren eraikuntza eta ustiapeneko lizitazioa kudeatuko du (sektoreko eta zonaldeko hodiak, lursailen kontzentrazioa eta ingurumen-eraginaren neurri zuzentzaileak).

Xede horretarako, lanak egikaritzeko finantzaketa-formula publiko-pribatu egokiena aztertuko duen bideragarritasun-azterketa egingo du, 20 urteko ustiapena izan daitekeena. Horretarako bi formula aztertzen dira: emakida-sistema eta ekonomia mistoko sozietatea sortzea. Formula horiek Europako legeriak markatzen duen bide bakarra dira egungo egoera ekonomiko berriari aurre egiteko azpiegitura publikoak eraikitze aldera.

Halaber, INTIAk ere interes orokorreko azpiegiturak eraikitze aurreproiektua idatziko du, eta obrak eraikitzeo nahiz ustiatzeo baldintza-agiri teknikoak egingo ditu. Gainera, lursailak kontzentratzeo lanak bere gain hartuko ditu.

Nafarroako Gobernuak INTIArekin sinatu beharko duen hitzarmenak ere ondorengoa jasotzen du: Foru Administrazioiko ordezkari bat izendatzea esleipendun erakundean obrak ikuskatzeko.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak lehen faseko zabaltzearen Udalez Gaineko Eragina duen Proiektu Sektoriala jorratu beharko du aurten, eta dagokion ingurumen-eraginaren deklarazioa, haien izapidea jada hasita dagoena bi kasuetan.

Obren eraikuntza amaituta, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentuak ureztatzeo deklarazioa egingo du. Ustiatzeo epea amaitzean, obrak erabiltzaileak diren komunitate ureztatzaileei emango zaizkie.

Inbertsioa optimizatzea Nafarroako Ubidean

Lehen fasea 15.275 hektareatan zabaltzeo erabakia hartu zen Ebro ibaiaren eskuineko eta ezkerreko aldeetan inbertsioa optimizatzeo beharraren aurrean (aurrezteo ureztatze-teknika modernoekin hasieran aurreikusitako balioekiko, energia-kostuak handitzeo, Lodosako Ubideak ureztatutako eremuak gainezartzeo edo hektareak kentzeo kota altuetan onartu ezin diren ponpaketa-kostuekin). Jarduketari esker, Gobernuaren planen arabera, nekazaritzako ustiapenen lehiakortasuna handituko da eta nekazaritza-industrian sartzeo.

Udalen eta komunitate ureztatzaileen laguntza-adierazpenak dituen zabaltzeo iragan irailaren 5ean gauzatu zen, Nafarroako Gobernuak erabaki zuenean [bere zonalde ureztagarria sartzeo](#) Nafarroako Foru Komunitateko Sail Ureztatuen Planeko jarduketa-zerrendan, eta jarduketa erabilgarritasun publikokoa eta interes orokorrekoa deklaratu zuen.

Orain arte, Ubideko lehen fasearen eraikuntza amaitu da –Ubideko hasierako zentral hidroelektrikokoa amaitzeo baino ez da falta– eta bertako zonalde ureztagarria 22.363 hektarea ureztatzen jartzeko.